



Julen Olaso - Jon Elortza
Aixerrota BHI, 15-16

AURKIBIDEA

Alberto Ladron Arana	3
Sarrera	3

Itzalak bizi diren lurraldea

Kokapena	3
Gaia	4
Argumentua	4
Istoria	4
Pertsonaiak	5
Egituraketa	5
Baliabideak	6
Iritzia	8
Bibliografia / webgrafia	9

ALBERTO LADRON ARANA

Filologiako Lizentziaduna. Hogei urte zituenean euskara ikastea erabaki zuen. 2001ean lehen saria lortu zuen Irun-eko Hiria eleberri-lehiaketan, Kutxa Finantza erakundeak ezarrita.

Obra, *Itzalaren baitan*, urte horretan berean editatu zen Kutxa argitaletxean.. Egileak Nafarroako Unibertsitate Publikoko eskolazaina gisa lan egiten zuen garai horretan, bere denbora libreka alegiazko eleberriak irakurtzen zituen. Tolkien bere egile gogokoena izanez. Hain zuzen euskaraz idazten hasi zen zerbait antzeko egiten saiatuz.

2002an lortu zuen Tene Mujika ipuinetako Sarian bigarren posizioan, Debako Udalak (Gipuzkoa) ezarrita. Kontaera laburrak *Betiereko itzulera* titulua zuen, eta narratiba generokoa zen.

Ladronnek esan zuen bere bi genero kutunak eleberri beltza eta alegiazko narratiba direla, eta bere irrikarik handiena bi joerak bateratu zituzten lanak eraikitzea zela.

2001. urtetik aurrera zortzi liburu idatzi ditu. Horien artean, ezagunenetarikoak, *Arotzaren eskuak* eta *Zer barkaturik ez dira*. Haren eleberriak kritikari askok iruzkindu dituzte, eta gehienek kritikak positiboak izan dira.

SARRERA

Alberto Ladronnek 2001ean aspaldi idatzi zuen obra honen lehen bertsioa, Irun Hiria eleberri saria irabazi zuen 2001ean, eta urte berean argitaratu zen *Itzalaren baitan* tituluarekin. Oraingo hau goitik behera berrituta dator: hobetuta, egileak ahal duen neurrian; laburtuta, lehengo tamaina ia erdira ekarri baitu; eta irakurle gazteentzat moldatuta, neurri batean.

KOKAPENA

Eleberri honetan hiru hilabeteko istorio bat kontatzen digu idazleak. Baina hasiera lehenagokoa du. Lehenengo pasartean gau batez liburutegi batean gertatutakoari egiten dio erreferentzia, baina hurrengo kapituluan aldiz, bi urte pasatu direla aipatzen da. Istorioa, bigarren kapitulutik aurrera, hiru hilabetetan gutxi gorabehera gertatzen da, Rikkak eta Jon neba-arreba umezurtzak txostena egiten hasten direnetik, Jonek dragoia hiltzen duen arte. Istorioa ez da soilik leku batean gertatzen, Arkaniar inperioko hainbat koloniatan gertatzen da.

GAIA

Eleberri honen gai nagusia bi neba-arrebek bizitzen dituzten abenturak dira, eta arriskueta sartzak zer nolako eragina duen.

ARGUMENTUA

Arkaniako mugetan, antzinako magia ilunaren berbizkunde hotsak dabilta, eta armadak horren aurka egiteko matxinada planak ditu. Hain operazio larria izateak zerbitzu sekretuen erabilerara behartzen dituzte armadako jeneralak. Naturaz gaindiko gertakariak eta naturaz gaindiko izakiak agertzen hasten dira... Gertakari horietatik at, Rikka eta Jon daude, etxebizitza bat lortzeko edozein gauza egiteko prest, eta horretarako txosten bat egin behar dute informazio konplexua lortzeko. Azkenean, inperioko gertakariak eta armadaren matxinadak biziko dituzte eta anaietako batek amaiera latza izango du.

ISTORIOA

Jon eta Rikka neba-arreba umezurtzak dira, txikitatik egon dira umezurtz, baina badaramate hainbat hilabete etxebizitza propiorik gabe. Rikka haren oihalez arduratzen den neska da; Jon, aldiz, bizitza den bezalako ikusten du, ez da ahizpa bezain lelotuta egoten mundu existentzialetan. Arkaniako armadako Jetras jeneralak etxebizitza paregabe bat lortzeko aukera eskaintzen die, baina horretarako Arkaniar inperio osoan magia dakiten pertsonen iritzi eta bizipenak txosten batean idatzi behar dituzte, eta horretarako denbora tarte bat dute.

Egunak aurrera joan ahala, geroz eta zailagoa egiten zaie informazio mamitsua aurkitzea, baina zorionez On Malakiasekin topo egin eta behar zuten informazioa ematen die. Behin txostena erdi bukatu izanda On Malakiasek laguntza eskatzen die. Haren laguna den Azeri Gorriaren bila joan behar dute, eta emandako diruzorroan dagoen dirua entregatu. Jon eta Rikka bidaiari abiatzeko prest zeuden, baina bat-batean Rikka bahitzen dute eta Jonek bakarrik ekin behar dio bidaiari. Azeri Gorria aurkitzean Jonek dirua eman eta gertatutakoa kontatzen dio, laguntza eske. Honek Gesaldengo presondegira joan behar duela ohartarazten dio, baina Jon bakarrik joateko beldur da.

Bidaia horretan zehar, Jonek Oxane ezagutzen du eta berarekin zeharo maitemintzen da. Azeriak presondegian lagun bat duenez giltzapeturik, berarekin doa. Gesaldenera heltzean Rikkaz galdezka hasten dira baina bertako presoek ez dakite ezer Rikkaz. Atso zahar batek Rikka hilik dagoela aitortzen dio Joni eta honek, negar zotinka, Azeri Gorriari kontatzen dio bere herrira bueltatuko dela. Baina Azeriak ez dio joaten uzten eta basamortuan zehar hirira bueltan doaz.

Janari gutxi zeramaten eta ez zuten ia urik, orduan Azeriak, erdi zorabiatu-rik, magiaz, aztiez eta antzinako beste hainbat istorioz hitz egiten dio Joni. Azken momentuan dragoi bati buruz hitz egiten du, dragoi beltz batez, itzalak bizi diren lurraldekoa. Azeriak Joni, dragoia hiltzeko modu bakarra ezpata magiko bat lortzea dela esaten dio. Eta hori kontatu eta segituan, lapurtu behar duela jakinarazten dio. Jonek ezetz erantzuten dio Azeriari, baina beraiekin zihoan Maisuak dragoia akabatzeke modu bakarra dela esaten du. Gauzak berriz pentsatu ondoren, Jonek baiezkoa ematen die eta ezpata lapurtzera abiatzen dira. Behin ezpata haien eskuetan dutelarik, Arkaniako Shadomir enperadoreak bueltatzeko agintzen die, baina Fraj jeneralak ezpataz hil egiten du Shadomir.

Azkenean, Jon dragoiaren aurka jarduteko momentua da, baina aurretik, dragoia dagoen tokiraino heldu behar dira, baina bidean elur-jauzi batek On Malakias harrapatu eta erdi hilik uzten du. Behin On Malakias alde batera utzi, dragoiaren aurkako borroka hasten da. Horretan Jon erdi zauriturik ateratzen da dragoia akabatzen duen bitartean, eta zorabiatu eta konortea galtzen du. Behin konortea berreskuraturik, Jon Oxaneren etxean osatzen da, haren neskalagunaren etxean. Handik aurrera elkarrekin biziko dira, Rikkaren oroipena bere buruan izanik, baina bizitza berri bat hasteko prest.

PERTSONAIK

- JON BERMAS. Obrako protagonistetako bat, bizirauten duen bakarra da. Ausardia, ohorea eta kemena adierazten ditu behar den momentuetan. Nahiz eta beldurturik egon, prest dago bere beldurrei aurre egiteko. Oxanerekin maitemintzen da.
- RIKKA BERMAS. Jonen ahizpa da, haren itxurak soilik arduratzen duela aditzera emten digu liburuak. Gesaldengo presondegira bidaltzen dute eta han gaixorik hil egiten da.
- JETRAS. Jon eta Rikkari etxebizitza baten truke txosten bat eskatzen die haiek betetzeko. Haiei bezala beste umezurtz talde bati agintzen die etxebizitza lortzeko aukera izango dutela. Pertsona krudela izatearen itxura du.
- BERMITIS JAUNA. Ez du eleberrian garrantzi handirik, bere izaeraz ez dakigu askorik, eta bere egoera fisikoaz, neska usaina duela eta txikia dela.
- AZERI GORRIA. Jonek uste duen baino argiagoa da, oso pertsonaia hotza dirudi, baina Jon laguntzeagatik edozer egiteko prest dago. Ez du beldurrik izaten egoera larrien aurrean eta beti hitz egokia prest du, momentu egokietan. Askatasunaren aldeko borrokalaritzat du bere burua. Ez dio lausengurik esaten inori. Aurpegi zorrotza du, itzalia, irribarre ironiko batez dabil beti.

- ON MALAKIAS. Jon, Arkaniako inperioko istiluetan sartzen duen pertsona. Aztia izandakoa. Baina bere bizitza pribatuaz eta iraganekoaz inork ez daki ezertxo ere.
- SHADOMIR ENPERADOREA. Istorioan ez da askotan agertzen baina, hilik bukatzen du, Frag jeneralak ezpata magikoaz hiltzen duelako.
- FRAG JENERALA. Shadomir enperadorea hiltzen du. Ez da istorioan asko agertzen. Arkaniako armadan dago sarturik. Haren iraganeko merituengaitik dago jeneral postuan.

EGITURAKETA

Istori hau pasarteka idatzita dago, 29 pasarte dira hain zuzen.

Istoria linealki kontatuta dago, gertaera batetik abiatuz istorio luze bat kontatzen du. Azeriaren eta On Malakiasen adierazpen eta kontaketa batzuek iraganari egiten dioten erreferentzia eta momentu horietan linealtasunaren apurketa bat nabaritzen da.

BALIABIDEAK

Narratzailea

Istoriako narratzailea liburuko protagonista bera da. Narratzaileari dagokionez bi motatako narratzaileak antzeman daitezke eleberrian.

- Lehen pertsonakoa, berak egiten duena kontatzen du:

Gizontxoak irakurtzen aritua zen gutuna tolestu zuen. Jetrasen izena ikusi nuen pergamuan idatzita. Bermitisek mahaia inguratu zuen, nik Jetrasentzako posta irakurtzen harrapatu nuela-eta inolako deserosotasunik azaldu gabe, Aitzitik, haren irribarrea zabaldu egin zen, artale itxurakohortz horixka batzuk erakutsiz. (62)

- 3. pertsonako narratzaile orojakilea, gertatzen dena soilik kontatzen du, ez du parte hartzen.

Fraggek kopeta ilundu zuen, azken egun haietan lo gutxi egin zuen eta gogoia lausoturik zeukan. Kezka sobera zebilkion buruan. (112)

Idazleak hainbat baliabide erabiltzen ditu nobelan zehar. Ondokoak nabarmenduko ditugu:

Elkarrizketa

Bi pertsonen edo gehiagoren arteko elkarrizketa erabilia da eleberrian. Baliabide honi esker pertsonaia bakoitzaren ikuspuntua eta informazioa jaso dezakegu.

—Fred askatzearekin batera Rikka ere aska dezakezu.

—Gurutik zaude? —lehertu nintzen—. Nola nahi duzu bi preso askatzea?

—Isil zaitetz, alu hori, eta entzun! —hortz tartean hitz egiten zuen—.

Galdera erretorikoak

Galdera erretorikoak erantzunik behar ez duten galderak dira. Horien bidez, erantzun argia duen zerbaiti buruzko ironia egiten da.

Zer egin dugu hau merezi izateko?-galdera erretorikoa zen, baina maisuak erantzun zidan. (103)

Metafora

Izaki bizidun bat, elementu batekin konparatzea.

Han gelditu zen, zutik, burumakur, parte txarreko txorimalo baten antzera. (148)

Esaera zaharrak. Atsotitzak

Non fida, han gal (120)

Antitesia - Kontrastea - Kontraesana

Inon ez. Badaude tokiaak ez diren tokiak. Eta egoerarik gabeko egoerak. Hizkuntzek ez dute hitzik zenbait gauza deskribatzeko. (124)

Azkenik, obran arabierazko otoitzak ere badira testuan:

N´gai, n´gha´ghaa, shoggog... (215)

IRITZIA

Itzalak bizi diren lurraldea obran idazleak fantasiako mundu batean murgiltzen gaitu. Gai nagusia gerra eragin duten gizon gaiztoak eta magiarekin akabatzea da; beraz, aurreikusi dezakegu istorioa Erdi Aroan gertatzen dela.

Nobela hau bi zati nagusitan banatu daiteke. Lehenengo zatian protagonistak eta beste pertsonaia bat, protagonistaren arreba eta maisua kartzelatik ateratzera doaz eta behin handik irtenda bigarren zatia hasten da; bertan protagonistak ezpata bat lapurtu eta dragoi bat hiltzen du.

Lehenengo zatiaren edo obrako lehen zatia ez da oso erraza irakurtzeko. Pasarte batzuk oso luzeak eta geldoak dira eta Erdi Aroko eta gerren istorioak gogoko izan ezean latza egiten da irakurtzeko. Akzio falta nabaria da lehen zati horretan eta hori lehengoari gehituta oso geldoa gertatzen da irakurketa. Baina zaldunen eta Erdi Aroko gerren istorioak atsegin izanez gero liburua dibertigarria eta polita izan daiteke irakurlearentzat. Bigarren zatian gertaera garrantzitsu gehiago gertatzen dira eta orduan errazago irakurri egiten da.

Eleberri honetan dozenaka izen daude, baina ez egunero entzuten diren horiek, arabieraren antza gehiago duten izenak baino. Baina ez bakarrik pertsonaien izenak, ez; lekuen izenak ere oso arraroak dira eta nobela honen mapa izugarri handia eta asmatua denez, oso zaila eta korapilatsua da guztiekin gogoratzea.

Izatez, istorioa oso landua da idazleak erabiltzen dituen hitzak izenak eta xehetasun guztiengatik, baina irakurtzeko erraztasuna faltan bota dugu irakurtzean. Hasierako zatia irakurtzeko zailagoa denez, ez gaitu hasieratik harrapatu eta, horrela, bortxatuta irakurri dugu eta gogorik gabe irakurtzean liburuaren esentzia galdu egiten da.

Laburbilduz, istorioa gogoz irakurriz gero, oso obra interesgarria izan daiteke, baina arreta handia jarriz izen guztietan; bestela, gerta daiteke hasieratik apur bat galduta ibiltzea.

BIBLIOGRAFIA

Itzalak bizi diren lurraldea, Alberto Ladron Arana, 2015.

WEBGRAFIA

- http://www.elkar.eus/es/liburu_fitxa/harrian-mezua/ladron-arana-alberto
- <http://www.euskomedia.org/aunamendi/77681>
- <http://www.elkar.eus/es/autor/ladron-arana--alberto>
- <http://zubitegia.armiarma.eus/?i=452>
- <http://kritikak.armiarma.eus/?p=1633>
- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>